

ERABAKI-PROPOSAMENA, GOBERNU KONTSEILUARENA, EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA ONARTZEKO DENA.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 16.1 artikulua aditzera ematen duenez, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, modu koordinatuan eta globalean jasoko duena zer esku-hartze ildok eta jarraibidek bideratu behar duten EAEko botere publikoen jardura emakume eta gizonen berdintasunaren arloan (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako lege bategina).

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategian, ibilbide-orri bat proposatzen da, berdintasun benetako eta eraginkor baterako ardatz kritikoetan eta dimentsioetan aurrera egiteko, eta hori denbora horretan neurtzeko eta ebaluatzeko modukoak diren aurrerabideen bidez gauzatu behar da. Proposamena zabalik dago arlo hori dagokien agente guztientzat —publikoak eta sozialak— eta herritar guztientzat, eta aginte eta administrazio publiko guztiek aplikatu beharrekoa izango da. Horiek guztiek, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak ezarritako esku-hartze ildoekin bat etorriz, nor bere plan eta jardura-programak egin beharko dituzte, zeinetan beharrezkoa izango den gutxieneko eduki hau jasotzea: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 16.4 artikulua ezarritakoa (1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bategina).

Egiturari dagokionez, Estrategiak sei atal eta lau eranskin ditu. Lehenengo ataletan, batez ere aurkezpena, xedea eta helmugak (Sarrera) jasotzen dira, eta hor ezartzen denez, Berdintasunerako Estrategiaren helburua Eusko Jaurlaritzaren xedapen batzuk ezartzea da, emakumeen eta gizonen berdintasuna zeharkakotasunez txertatzeko EAEko erakunde publikoetan abian jarritako politiken ikuspuntuan, prozeduretan eta edukietan.

Egoeraren diagnostikoa ere funtsezko elementua izan da Estrategia definitzeko, eta horretarako, oinarritzko erreferentzia bi hartu dira kontuan:

- Estatistiken informazio ofizial berriena, EAEko emakumeek eta gizonen hainbat eremutan duten egoerari buruzkoa (eskuragarri dagoena).
- EAEko berdintasunerako politika publikoen bilakaerari eta inpaktuari buruzko informazioa.

Iturri horien multzoak informazio osagarria ematen du. Hain zuzen ere, informazio hori Berdintasunerako Estrategiaren abiapuntua da, eta baliagarri da Estrategiak bereziki zein arlotan eragin behar duen jakiteko. Gainera, informazio hori eskuragarria da, eguneratuta dago eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak prestatzen du aldizka.

2030 Estrategiak prestatze-prozesuari, xedeari, printzipioei eta bermeei buruzko atalak ez ezik, esparru operatiboarekin bat etortzea ere jasotzen du; esparru operatibo horretan, esku hartzeko ildoak jasotzen dira.

Estrategiaren bidez planteatzen den esku-hartzea egituratzeko, elementu antolatzaile hauek baliatu dira:

- **ARDATZAK:** Estrategiak lehenesten dituen lan-eremu estrategikoak dira ardatzak, eta horien bidez hedatzen da haren jarduera. Eduki guztien helmuga Strategiaren lau ardatzetariko bat lortzea da: Gobernu ona (GO), Emakumeen Ahalduntzea (EA), Gizarte-antolamendu Justu, Berdintzale eta Iraunkorra (GA) eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzak (IGB). Ardatz bakoitzak informazio hau jasotzen du:
 - **HELBURU ESTRATEGIKOAK:** Helburu estrategikoen epe luzerako ikuspegi bat ematen dute, horiei esker jakingo baita zein alderdi orokorretan eragin behar den esku-hartze publikoaren bidez, ardatzek ezartzen duten helmugara iristeko. Maila estrategiko honen helburuek inpaktu-adierazleak dituzte, baliagarri izango direnak neurtzeko Estrategia ezarri ondoren esku-hartzeak zer emaitza izan duen eta zer aurrerabide izan diren Emakumeen eta Gizonen benetako berdintasunaren bidean.
 - **ESKU HARTZEKO ILDOAK:** Helburu estrategikoei heltzeko, edukiak lan-ildoetan multzokatu dira, bloke tematikoetan edo eremuetan ordenatuta.
 - **HELBURU ESPEZIFIKOAK:** Lan-ildoen edukiak helburu espezifikoak — zehatzagoen— bidez zehaztu dira, plangintzaren eraginkortasuna ahalbidetzeko.

Azkenik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategian, honako hauek jasotzen dira: Estrategia ezartzeari eta garatzeari buruzko atal bat, Estrategia hedatzeko erakunde-egiturak eta Estrategia artikulatzeko lan-prozesuak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia aipatu lege-mandatuari erantzutera dator, eta, XII. legegintzaldiko (2020-2024) plan estrategikoen barnean dago, Gobernu Kontseiluak 2020ko abenduaren 15ean hala onartuta.

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak, 2024 otsailaren 13an egindako bileran, erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia onartzea. Estrategia 2030era arte egongo da indarrean, eta erabaki honen eranskinean dago.

Bigarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen kargu uztea Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia bultzatzeko eta koordinatzeko funtzioak, jarraibide hauen arabera:

Erakunde bakoitzak nork bere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako jardueraplanak baliatuko ditu Estrategia ezartzeko; barne-koordinazioaz, berriz, egitura hauek

arduratuko dira:

- Autonomia-erkidegoaren eremuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Foru-eremuan, berdintasunerako koordinaziorako foru-organoak.
- Toki-eremuan, berdintasunerako koordinaziorako toki-organoak.

EAEko administrazio-mailen eta EAEn dauden erakundeen arteko lankidetzaz eta koordinazioaz egitura hauek arduratuko dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
- EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordea.

Hirugarrena.- Agintzea plana onartu ondoren planaren jarraipena eta ebaluazioa egin dadila, honako hauen arabera:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa Estrategian bertan ezarritakoaren arabera egingo dira. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren segimendua eta ebaluazioa egitea eta kontu-ematea emaitzei buruz eta gizarteraldaketaren eta berdintasunean oinarritutako balio-aldaketaren inpaktuari buruz. Berdintasunerako Estrategiaren jarraipena aldizka egingo da, bi ardatz hauen inguruan: Estrategiaren betetze-maila aztertzea eta ikaskuntzak, indarguneak eta hobekuntzak identifikatzea.

2030 Estrategiak bi ebaluazio izango ditu: tarteko ebaluazioa eta azken ebaluazioa. Bai tarteko ebaluazioan, bai azken ebaluazioan, 2030 Estrategiaren 11 helmuguen betetze-maila eta inpaktu-adierazleak neurtuko dira, oinarri-urtearekiko zer aldatu den jakiteko eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean erdietsi diren lorpen nagusiak identifikatzeko.

Ebaluazioaren emaitzak erreferentzia izango dira Berdintasunerako Legearen betetzeari, garapenari eta aplikazioari buruzko bost urtean behingo ebaluazioa egiteko.

Laugarrena.- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia garatzeko onartzen diren planak gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak egokitu egin beharko dira Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan jasotakora.

Bosgarrena.- Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio komunikazio gisa, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 199. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu dezan.

Seigarrena.- Euskadiko foru-aldundiei eta udalei jakinaraziko zaie, jakinaren gainean egon daitezzen eta ondorioak izan ditzan.



Zazpigarrena.- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia gardentasuneko atarian argitaratzea, bai eta aldizkako ebaluazioak, betetze-maila eta emaitzak ere —neurtzeko eta baloratzeko adierazleak barne—, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.2 artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

Aurkez bekio Gobernu Kontseiluari.

Vitoria-Gasteiz,

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.